

KANPO ESPAZIOTAN METODOLOGIA AKTIBOEN ERABILERA  
(2023/04/21)



## URDAIBAICO INGURUMEN HEZKUNTZAKO PROIEKTUA

Ingurumen hezkuntza  
Urdaibaiko bihotzean

Egun on. Hasteko eta behin, mila esker jardunaldi honetara gonbidatu izanagatik, ikaragarriko plazerra da bertan hainbat aditu eta batez ere jende konprometiturekin egotea. Urdaibaiko Ingurumen Hezkuntzako Proiektutik gatoz, hainbat urtetan zehar Sukarrieta izenarekin ezagunak, eta zer garen eta zertan aritzen garen azaltzen ahaleginduko gara era labur batez.



- Hezkuntza Saila eta BBKren arteko hitzarmena
- 1982an sortua
- Bizkaiko ikastetxeen eskura dago, astero talde desberdinak, 4 eguneko egonaldia
- Ingurumen hezkuntzako zentroa, lan-proiektu desberdinak garatzen dituen




UIHP bbk



Baloreak bateratuz, erakunde pribatu eta publiko baten arteko elkarlanaren emaitza gara. BBK eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arteko hitzarmen baten bidez

sortua, 40 urteko ibilbidea darama gure proiektuak Bizkaiko ikastetxe guztien eskura dagoen zerbitzu bat izaten.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bihotzean dagoen BBK Urdaibai Zentroan dauka egoitza gure proiektuak, baina egoitzatik haratago doa, kanpoko espazioek berebiziko garrantzia daukatelako guretzat. Bestalde, Bizkaiko testuinguru eta errealitate desberdinetako ikasleek ingurumenari buruz dituzten pertzepzioetatik abiatzen garelako. Lau egun eta hiru gauz osaturiko egonaldiak izaten dituzte ikasleek hemen, beraz astero ikastalde desberdinak hartzen ditugu. Bi mila ikasle inguru urtero eta ehun eta hogeira irakaslelik gora.



Zeintzuk dira gure helburuak? Ingurumen krisi batean murgilduta gaude. Eta krisi honi erantzuteko proiektuetan lantzen ditugun helburuak honako hauek dira: sentibilizatzea, ezaguera, kontzientzia hartzea, jarrera aldatzea, irtentzeak proposatzea eta ekimenetan parte hartzea. Horretaz gain, elkarbizitza sustatzen da jatorri eta ingurune desberdinetako ikasleekin; azken finean, herritar konprometituak bihurtzeko. Hori ikasleei dagokienez, irakasleei dagokienez: gure metodologietan trebatzeko aukera ematen diegu, hemendik irtendakoan beste ikastetxe edo esparru batzuetan aplikatu ahal ditzaten metodologia horiek. Ikasleekin bertora etortzen den irakasleriak formakuntza bat jasotzen du soziokonstruktibismoan oinarritzen den eskuhartzean.

# METODOLOGIA



Lev Vigotsky



Cesar Coll






Jean Piaget




Metodologiari dagokionez: ikuspegi eraikitzailearen printzipioak geure egiten ditugu .

# AURREZAGUTZAK



Ikasleen aurretiazko ezagueretatik abiatzen gara, garapen hurbileko eremuan aritzea da gure ezaugarrietariko bat. Lan Proiektu desberdinen bitartez lantzen ditugu Ingurumen Hezkuntzari dagozkion edukiak. Adibide gisa: BIODIBERTSITATEA Lan Proiektuan “Zer da Ekosistema bat” eta “Zeintzuk dira ekosistema bakoitzean aurkitu ahal diren elementuak” galderei ikasleek eman dizkioten erantzunak dituzue ikusgai hemen (argazkia: ikasleen fitxak + paper marroian guk jarritako erantzunak) erantzun desberdin hauek gatazka kognitibo bat sortzeko egoera eskeintzen dute. Horrek sortutako jakin-mina eta motibazioa aprobetxatuz, zalantza komun bat sortzen da.

## PLANIFIKAZIOA



**ERRONKA GARBIA**  
INGURUNEAREN ALDETIK JASANGARRIA DEN EKITALDIA



**UIHP**

**bbkE**

Zalantza horri erantzuna emateko planifikazio bat adosten da ikasleekin, beti beraiek protagonista izatea bilatuz, argazkian ikusten denez, ikasleek beraiek bideratzen gaituzte bilatzen dugun erantzuna egoitziatik kanpo aurkitzera (“Leku altu batera joan”). Gainontzeko proiektuetan berdin jokutzen da, baina bakoitzak dagozkion galderen erantzunak sortu dituzten zalantzak argitzeko espazio desberdinetara joaten gara, helburu desberdinekin.



**LURZORUA**

## EKIMENA



**ERRONKA GARBIA**  
INGURUNEAREN ALDETIK JASANGARRIA DEN EKITALDIA



**PLANETA**




**UIHP**

**bbkE**

LURZORUA proiektuan ikasleek Gatz Mineralen Zikloa ezagutu dezaten baso batera joaten gara, PLANETAN Urdaibaiko baliabide naturalak zeintzuk diren jakiteko ibilbide zirkular bat egiten da ingurutik. Ingurunearen ezagutza ingurunea beraren bidez da, beste batzuen artean, gidatzen gaituen ardatza.

Adibide gisa, hemen dituzue gure Lan Proiektuetan erabiltzen ditugun zenbait eremu desberdin.



ERRONKA GARBIA  
INGURUMEN ALDETIK  
JURANGARRIA DEN



Ingurugela



## LURZORUA



UIHP bkkE

LURZORUA: Era ekologikoan lantzen dugun lursailaren bitartez, ekoizpen mota honek dituen onuretz kontzientziatu daitezten saiatzen gara. Ekoizpen eredu desberdinek merkaturatze mota desberdinetan daukaten isladaz konturatu daitezten saiatzen gara Bermeora egiten den irtenaldi honen bidez. Ikuspegi sistemiko bati erantzunez, gure kontsumo ohiturek nekazaritza mota desberdinetan daukaten eraginaz gain, gure osasunean, kulturean, eta beste hainbat esparrutan dituzten eraginetaz sentsibilizatzea lortzen dugu.



ERRONKA GARBIA  
INGURUMEN ALDETIK  
JURANGARRIA DEN  
ESTALDIA.



Ingurugela



## PLANETA



UIHP

bkkE

PLANETA: Txatxarramendiko irlara egiten den irtenaldiari esker naturak funtzionatzeko dituen ziklo desberdinetaz konturatzeko da helburu, funtzionamendu mota hau gizakiok daukagun funtzionamendu linealarekin kontrajartzen da, ustiaketa eta fabrikazioaren ondorioak, gehiegizko kontsumoaren ondorioak, lan baldintza eskasak kontsumitzen ditugun produktuen jatorrian, umeen esplotazioa... bezalako

ondorioetaz kontzientziatzea bilatzen dugu proiektu honetan. Ikusten ditugun bezala, kanpo espazioak aipatzen ditugunean ez gara bakarrik espazio naturaletaz ari, baizik eta baita ere espazio urbanizatuagoetaz. Azken batean, ikasle askok bizi duten errealitatea, hau da, beraien ingurune hurbila, era honetako espazioetan ematen baita.



## BIODIBERTSITATEA



UIHP bkkE

BIODIBERTSITATEA: Hemen ekosistema desberdinetan barneratzeari esker, hauen ezagutzaz gain, ikasleek hauekiko harreman afektibo bat lortu dezaten bilatzen dugu, horrek laguntzen baitu ekosistema hоек osasuntsu egotearen garrantziaz jabetu daitezen.



## URA



UIHP bkkE

URA: Baita ere ezinbestekoa den baliabidea den uraren kasuan, hau jasaten ari den problematikaz kontzientzia hartu dezaten balio digute irtenaldiek.



## SARE JASOKETA



UIHP

bbkE



ERRONKA  
GARBIA  
INGURUMEN ALDETIK  
JAKIANGARRIA DEN  
ERKATEKIA


Edozein ekimen egin ostean, ekimen hori motibatu duen zalantzari erantzun bateratu bat ematea bilatzen dugu ikasleen artean, berdinen arteko ikasketa da gure beste ardatzetariko bat.



UIHP

bbkE

Erantzun hauek eduki sare batean islatzen dira, hemen adibideak: erantzun hori bilatzeko galdera erantzunen bidezko harreman dialogikoa da geure egiteko eraren ezaugarria den tresna pedagogiko bat.



## PROGNOSIA



UIHP bkkE

Sare hau beti konparatzen da Proiektua hasi baino lehenago honi buruz zituzten ideiak isladatzen diren prognosiarekin .



## ALTERNATIBA



Zuhaitzen birlandaketak



Zabor bilketak



Papera birziklatzea



UIHP bkkE

Proiektua bukatu aurretik, ikasleak jasaten ari garen ingurumen krisiaz jabetzen dira. Herritar aktiboak bihurtu daitezzen bilatzen dugu, konturatu daitezzen krisi honen erantzule garena baina baita ere irtenbidea gure esku dagoela. Horretarako bideratzen ditugu alternatiba desberdinak proposatu ditzaten. Prosatutako alternatibetatik batzuk aukeratu eta aurrera eramaten ditugu. Hauek aurrera eramateko kanpo espazioak erabiltzen ahalegintzen gara.

Hona hemen adibide batzuk: Zaborra batu, plantoia, txorrotena...





## ALTERNATIBA



Zuhaitzen birlandaketak



Zabor bilketak



Papera birziklatzea



UIHP bbkE

Gure beste helburuetariko bat elkarbizitza da. Alde batetik jatorri eta testuinguru desberdinetako ikasleen artekoa, eta bestetik, ikasgela berdineko ikasleen artekoa. Talde kohesioa sustatzeko kanpo espazioan dinamika desberdinak egiten ditugu.



## URDAIBAIKO INGURUMEN HEZKUNTZAKO PROIEKTUA

### Sarean:

<https://www.euskadi.eus/iraunkortasuna-eta-hezkuntza-esku-hartzea-aurrezpena/web01-a3hihea/eu/>

Edo eta

<https://www.bbk.eus/proiektuak/uihp/>



**Posta elektronikoa**

[uihp-ejgv@bbk.eus](mailto:uihp-ejgv@bbk.eus)



**Telefonia**

**946871011**



UIHP bbkE

Aipatu bezala 40 urteko ibilbide kontsolidatu daukan proiektu hau ikasleak ahalduzko zein irakasleak trebatzeko baliabide bat garez, gonbidatzen zaiztuztegu gure proiektua ezagutzera.

<https://www.euskadi.eus/iraunkortasuna-eta-hezkuntza-esku-hartzea-aurrezpena/web01-a3hihea/eu/>